

**JAKINARAZTEN DA** 2009ko irailaren 24an Alkate andreak hurrengo dekretu hau eman duela:

“Udaleko Ur Zerbitzuko iturgin lanpostu bi betetzeko deialdia egin zuen Bergarako Udalak, horretarako oinarriak onartu zituelarik Udaleko Alkateak 2009ko maiatzaren 26an emandako dekretu bidez.

Lehiaketa oposizioaldian gainditu duten bi izangaiak kontratatzearen aldeko proposamena egin du epaimahaiak.

Kontuan izanda, 3. oinarrian jasotzen dela, izangaien betebeharrekoen artean, lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasun edo akats fisiko nahiz psikorik ez izatea, eta hori egiaztatzeko azterketa medikua pasatu beharko dutela.

Kontuan izanda, kontratazioa egitea premiazkoa dela, hori ikusita, eta erabakia presazkoa denez, **ERABAKI DUT**

LEHENEA: Aritz Mendieta Arnaiz eta Isidro Arrieta Baro jaunak kontratatzea 2009ko urriaren 1etik Ur Zerbitzuko lanpostuak betetzeko. Kontratuak fijo izaera izango du eta 2 hilabeteko frogaldia izango dute, azterketa medikua ez pasatzeak kontratua bertan behera lagatzea suposatuko duela gogoraraziz.

BIGARRENA: Erabaki honen berri ematea Enpresa Komiteari, Pertsonal Sailean eta kontratatuko direnei.”

Ebazpenaren aurkako bideak:

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian.

Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

Lege-oinarria: Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 109.c, 116. eta 117. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2009ko irailaren 24a.  
IDAZKARIAK

Por la presente **SE COMUNICA** que la Sra. Alcaldesa emitió el siguiente Decreto el 24 de septiembre de 2009:

“El Ayuntamiento de Bergara realizó una convocatoria para la provisión de dos plazas de fontanero para el Servicio de Aguas del Ayuntamiento, cuyas bases fueron aprobadas mediante Decreto emitido por la Alcaldesa el 26 de mayo de 2009.

El Tribunal ha propuesto la contratación de los dos aspirantes que han superado las fases del concurso-oposición.

Teniendo en cuenta que, entre los requisitos que debían reunir los aspirantes está el no tener ningún impedimento físico, psíquico ni cualquier otro que impida la normal prestación de las funciones propias del puesto de trabajo y que deberán superar el reconocimiento médico.

Teniendo en cuenta que urge realizar la contratación, visto lo cual y siendo urgente adoptar una resolución, **H E R E S U E L T O**

**PRIMERO:** Contratar a don Aritz Mendieta Arnaiz y a don Isidro Arrieta Baro a partir del 1 de octubre de 2009 para cubrir las plazas del Servicio de Aguas. El contrato tendrá carácter de fijo y contará con un periodo de prueba de dos meses, debiendo recordar que no superar el reconocimiento médico supondrá la rescisión del contrato.

**SEGUNDO:** Dar cuenta de esta resolución al Comité de Empresa, en el Departamento de Personal y a los aspirantes que van a ser contratados.”

Recursos contra la resolución: Contra la resolución que se le notifica, y que es definitiva en vía administrativa, podrá usted interponer recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al del recibo de esta notificación.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución que se le notifica podrá Vd. interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes a contar desde el siguiente al recibo de esta notificación.

Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

**FUNDAMENTOS JURÍDICOS:** Todo ello conforme a lo dispuesto en los artículos 109.c, 116 y 117 de la Ley 30/1992 de 26 de Noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común modificada por la Ley 4/1999 de 13 de enero, el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa según redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre, y el art. 46 de la misma Ley así como el artículo 5 del Código Civil.

Bergara, 24 de septiembre de 2009.  
LA SECRETARIA